

## BALOREZKO PROPOSAMENA

Urte askotan, tamaina handiak behar dituzten emakumeentzat, arropa erosi beharraren esperientzia astuna eta etsigarria bihurtu da. Asko dira dendetan ez dituztenak beraien neurriko arropak aurkitzen. Arazo hau ikusita, honi erantzun bat emateko enpresa bat sortzea erabaki dugu. Behar izan bat ikusi dugu, neurri handiak behar dituen jendeak zailtasun asko dituelako beraien neurriko arropa aurkitzeko. Beraz, gure enpresaren helburua estereotipoak ezabatzea da. Nahiz eta beste dendak lehia izan, uste dugu, eredu bezala hartu beharko luketela gure denda, bezero guztientzako arropa egiteko, ez bezero batzuentzako bakarrik.


Gure produktuak balio kualitatiboa izango dute, kalitatezko arropak salduko ditugu prezio eskuragarrian, eta horrek bereiziko gaitu beste dendetatik. Eskuragarritasunari dagokionez, denda fisikoaz gain, internet bidez erosi daitezke gure produktuak. Horrela, dendara erostera etorri ezin dutenak webgune bidez egingo dituzte eskaerak.

Horrez gain, Ecoalf enpresarekin elkartuko gara gure proiektuak hobeto funtziona dezan. Elkarrekiko lehiakide ez diren enpresen arteko aliantza estrategikoa sortuko genuke, hau da, elkarrekin lanean ibiliko gara, eta hau bi enpresentzat onuragarria izango da. Ecoalfek arropak diseinatzen ditu birziklatutako materialekin, eta kontsumo arduratsua eta jasangarria sustatzen du, baliabide naturalen kontsumoa mugatuz eta CO2 isuriak murriztuz. Beraz, gure enpresak eta gure produktuak arropa sortzean eta erostean ingurumenari laguntzen ibiliko gara. Gaur egun gure gizartea kontsumismoan oinarritzen da, ingurumenari laguntzeko eta errespetatzeko eta produktu paregabeak erosteko nahia asetzeko modurik onena bigarren eskuko dendetan erostea da. Beraz, uste dugu bezero askori interesgarria irudituko zaiela Ecoalf enpresarekin lanean ibiltzea.

Ondorengo grafiko honetan ikusi dezakegu nola azken urteetan neurri handiak behar dituen jende kopurua erabat handitu dela. Ondorioz, uste dugu behar izan hau gero eta handiagoa dela, gero eta jende gehiagok dituela arazoak bere neurriko arropa bilatzeko. Nahiz eta grafiko honek ez adierazi Euskal Herriko zifrak, badakigu Euskal Herrian ere bai arazo hau dagoela, denda askok ez dituela eskaintzen denontzako neurriak.

# Women's Plus-size Apparel Market in the U.S.

## Monthly Revenue Trend, 2019 through 2021



Source: The NPD Group/Consumer Tracking Service, 2019—2021  
Women's Plus includes the following size types: plus size/full figure, petite plus and junior plus

[Iturria: edicionessibila.com](http://Iturria.edicionessibila.com)